

PIO IX-GARRENA AURCHO BATEN SALBATZALLEA.



(JARRAITEA).

Jaungoikoak ikusgarri era batean estaltzen zuen Pio IX-garrenak bereganatu zuen aurcho ori. Beñ, Alatri deritzan, Erromatik urruti ez dagoen erri batean, Sarra Apaiz Erretore Jaunaren echean gelditzen zan Edgardo, eta Meza laguntzen zuenean, joan zitzaizkan bere Aitamak, sakristiratu zanean. Asmoa bazeukan bere Aitak berarekin eramateko mutilla. Baña Edgardo, bere Aita ikusi ezker, bereganatu bearrean, arriturik gelditu eta ikaratzen asi zan beldurrez, eta deadar egin eta negarrez Apaizaren laguntasuna eskatzen zuen. Orduan Apaizak bere Aitari adieratzera eman zion alperrik bereganatu naiko zuela mutilla bere borondatearen kontra, eta atzeratu bear zuela. Au aditu ezker aldegin zuten gurasoak, eta beñere ez ziran agertu.

Gero berriz Erromaratu zan Edgardo, Sarra Apaiz Jaunarekin, eta Pio IX-garrenak ipiñi zuen S. Agustiñen Kanonigo Erregularrak S. *Pedro ad Vincula* zeritzan Eleizaren onduan zeukaten Azitechean. Or gelditu zan sei urtetan, eta amalau urte irichi ezker, sartu zan esan diran S. Agustiñen Erljiosoen Ordenan, Pio IX-garrenaren baimen eta onsanarekin, eta amabost urtekoa izanik, Nobizioa egin zan, eta urte bat barru Profesua, bere izentzat *Pio María* arturik.

Ezin geiagorañokoa izan zan Pio IX-garrenak Edgardo-ganako zeukan makurtasuna eta erakutsi zion naia, Aitak bezela bereganatu eta estali zuen ezker.

Sarritan doai bat edo beste biraldu zion, bidean topatu zuen gazi-tietan onesan guziz berezikoa ematen ziola. Bereganatu zuen Edgardo, Batikano deritzan Aita Santuaren Jauregian, beti guziz gozo eta beráa

agertu zitzayon Aita Santuak, laztandu zuen, esanik bere gurasoen to-
kian Aita bezela izango zala berarentzat, guziz asko kosta zitzayola
bere arima, eta berak alegiña egin bear zuela, Jainkoaren grazia añ
andiarri eranzuteko.

Urteoro joaten zan Pio IX, Sta. Irusaren Eleizara *Via Nomentana*
deritzan tokira, Santuari eskerrak ematera gorde zuelako bere bizitza
illtzeko arrizku guziz urkoan. Orduan Edgardok irakurri zituen itzneu-
rri batzuek; negar egiten zuen Pio IX-k, eta bere bendizioa eman ez-
kero, esaten zuen indar guziarekin gogoz ta pozik ikusten zuela bere
oñetan arako gaztea, bere arimaren balioa zala Jesukristoren odola,
eta munduko *aundiak eta chikiak* nai zutela atzera eman zezaiela gu-
rasoai arima ori, baña iñoiz egingo ez zuela, eta berriz bear izango
bazitekean, berriz ere egingo zuela, egin zuena. ¡O Aita Santua, Pio
IX.... zer biotz andia izan zan zurea!! Oroi zaite zeruan, lurrean ain
besteraño maite zenduen zure umezurtzaz!!!

PiO M.^a MORTARA,
Canónigo Regular de S. Agustín.

(*Jarraituko da*).



—Ya voy, querido mio.

Y cayó desplomado. Varias personas acudieron en su auxilio; Mosen Pierres habia dejado de existir.¹

ARTURO CAMPION.

PIO IX-GARRENA AURCHO BATEN SALBATZALLEA.

(JARRAITEA).

Esango dedanaren bidez, agirian jarriko da Pio IX-garrenak Edgardoganako zeukan nai andia. San Gregorio-ko Eleizan, Erroman Zelio deritzan egicho batean dagoenean, bere festegunean arkitzen zan Edgardo bere lagunakin Santuari agur egiteko. Ara zijoan Pio IX-garrena, eta eleizaratzen zanean, beste asko bezela, Edgardo ere Eleizatearen ondoan jarri zan, Pio IX-garrena igarotzen zanean bere oñari muñ egiteko. Bazetorren Pio IX-garrena; eta Edgardo aiñ gogoz ta pozik eta indar guziaz aurreratu zan Aita Santuaren oñ sagraduari muñ egiteko, non bere bekokiarekin jo zuen Aita Santuaren belauna, eta aletan non Edgardok berak miñ asko artu zuen, eta Aita Santua atzeratu zan, eta baldin bere laguntasun edo Korteko bat aurreratu ez bazan, Aita Santua eroriko zan. Arriturik gelditu zan Edgardo au ikusirik, eta lotsarik andiena zeukan, aurpegia sugarrak bezela gorria zeukala. Au guzia ikusirik Aita Santua, orduan, bai, iñillik gelditu zan, eta aurrera zi-

(1) La ciudad de Bayona, queriendo mostrar su agradecimiento á la memorable hazaña del jóven Gaston de Belsunce, regaló á su heredero unos terrenos en San Pedro de Irube, para que edificase en ellos su casa, y el buen rey Cárlos el Noble le elevó un grado más en la gerarquía de la nobleza, y le concedió el derecho de llevar en uno de los cuarteles de su escudo, un Dragon de tres cabezas, que aún hoy ostentan sus ilustres descendientes. La piel del mónstruo muerto por Gaston, se conservó hasta fines del siglo pasado en la Catedral de Bayona, de donde desapareció en la época de la Revolucion.

joen. Baña Edgardo bere lagunakin Aita Santuari jarraiturik, beregana deitu zuen Aita Santuak eta boz eta era gogorrarekin (beintzat ichuraz) esan zion: ¿Badakizu zer egin dezun gaur? *guchi gora bera, Aita Santua illko zenduen?* eta ¿zer esango ote zuten munduak eta Eleiza Santuaren etsaiak, baldin ori gertatu bazan? Esango zuten, Pio IX-garrenak bereganatu zuen mutill ark Aita Santua ill zuela?... ¿zer eskergabetasun beltza? Orain bada, agirian izan dedilla, damutzen zatzula egin zenduen chorakeriaz, muñ egin lurrari; au Edgardok egin ezkerok, esan zuen Aita Santuak «berriz, muñ egin lurrari, eta gero zure mingañarekin kurutze bat egingo dezu lurgañean»: au guzia egin zuen Edgardok, lotsaz betea zeukala arpegia, eta begiak goratzera ez atrebiturik. Orduan esan zien Aita Santuak an zeuden bere Korteko jaunai eta jendeari: «Begira nola esanai jarraitzen ikasten duten Erlijiosuak, ezer kostatzen ez zaie, aurtasunetik ala moldatzen diralako»; au esan ezkerok guziz gozoro farregin zuen, eta Edgardori bere onesan edo bendizioa eman zion!!.. Orra zer egin zuen Aita Santuak bere semearekin! zer ontasun miragarria! zer biotz andia zeukan, eta erraz era onezaz gizon guzien biotzak bereganatu zituen eta egin zan mundu katolikoaren biotza!!..

PÍO M.^a MORTARA,
Canónigo Regular de S. Agustín,

(*Jarraituko da*).



que estaba tendida en el cementerio de la iglesia y en la muralla, así como también la artillería, hicieron por intervalo sus descargas.

FIN DE LA PRIMERA PARTE.

PIO IX-GARRENA AURCHO BATEN SALBATZALLEA.

(BUKAERA)

Arako oroitz tristeko 1870-garren urtean, Erroman gertatu ziran ainbeste bidegabe, estutasun, oñaze eta naigabeen artean, Pio IX-garrenak aita-aitaren eran guziz biguñki begiratzen zion bere umezurtz laztana zan Edgardo-ri, eta pozik nai izan zuen bera Erromatik erbes-tetzia. Italiako agintasunak alegiña egin zuen dala itzez, dala erreguz eta beste modu gogorrez Edgardo berriz bere echera itzultzera bear-tzeko. Orduan seguroro Edgardok, ez bakarrik artutako bere Erlogioko janzi santua, baizik fede eta birrutea ere galduko zituen, eta ori go-goz ikusiko zutekean Eleizaren eta Aita Santuaren etsaiak. Egunero illunkarunz San Pedro ad Vincoli zeritzan, Edgardo zegoen azitechea-ren ondoan soldadu batzuek ipintzen ziran, Erligioso gazteari irteera guzia eragozteko; baña Pio IX-garrenak gaztecho aregatik erregutu eta deadar egiten zuen zeru eta Jainkoaganunz ez arren utzitzeko gizon galgarriai nai zutena egiten. Urriaren 22-an, gabeko 10-etan, Edgardo beste lagun batekiñ, echearen baratzatik igarota, burdin bidearen gel-ditokira (Estaziora) joan, eta iñor ere oartu gabe, trena artu eta bi egunen buruan Austriako probincia dan Tiroleko errian allegatzen zan, eta Neustift zeritzan bere Ordenako aziteche batean jarri zan, an bir-tute eta ikasbideetan aurreratzeko. Ango Nagusi eta Orkaitzalleak, batezere On Juan Krisostomo Mitterrutzner¹ Erakuslea eta Ikaseche-

(1) El Sr. Doctor D. Juan Crisóstomo Mitterrutzner es Canónigo Regular de Letran en el convento de Neustift, cerca de Brixen, á donde se acogió Edgardo en su emigracion. El expresado señor dirige el Instituto ó Liceo de Brixen, y bajo su direccion se dedicó Edgardo á los estudios de las lenguas, favoreciéndole el expresado señor con muy especial cariño.

nagusi baten (Instituto) zuzentzalleak guziz ongi bera artu, ederki begiratu eta biotzetik arduratzen zuten. An bertan, esandako Mitterrutzner jaunaren zuzentzaren mendean ikasi zituen Edgardo-k izketa batzuek, eta batezere Erroman asitako Jainkundero (Teologia) ikasbide eta lanak aurrera zeramazkien. Alaere eta aiñ urruti erbesteuraturik, bere famili, eche eta gurasoaz etzan aztu, batezere bere egunoroko otoitzetan. Malko ugariak zerizkiola aditu zuen bere Aita laztanaren eriotza, eta sarri-sarritan oraindik gelditzen ziran Ama maitagarrria eta zortzi anaiakin izkirabatuz familia eta echeko elkargo luzea eramaten zuen, indar guziaz, alperrik izan arren, berak erligio egiazkora biurtzeko saiaturik. Geroago bi bider Franzian bere Amarekin elkar etorri bat izan zuen, eta bere anayak baño guchiago maite ez zuela bear dan eran erakutsi zion.

Pio IX-garrenak, Edgardo arako zorigaiztoko garaian Erromatik kanporatu zala aditu orduko, beraganako Aitaren nai andia agertu zuen, bere jauregiko lagun nagusiai esan zienean: «*Eman dizazkiogu eskerrak Jainkoari, Edgardok bere arimaren etsai galgarria gandik iges egin duelako eta estal-leku batean jarri dalako*».

Bi urte Tirolen igarota Erromako Nagusiak bidaldu zuten Edgardo Franziaiko erri dan Poitiers-ara. Pio IX-garrenak aspaldian esan izan zion Poitiers-ko Obispo argi eta guzis jakintsu, Monseigneur Pie,¹ geroago Aita Santu Leo XIII-garrenak Kardenal egindakoari, gogoz ikusiko zuela bere Aginterrian (Diócesis) San Agustíñen Kanonigo Erregularen eche bat, Edgardo ere bai Tiroletik aratu zedilla. Au berbera egin zuen Obispo Jaunak bi urte barrun, eta 1872-garren urtean, Beauchêne zeritzan errian, Obispuak egindako eche berrian, Pio IX-garrenak arako Obispoganatutako Erlijioso gaztea jarri zan bere ikasbide, aurrera eraman eta lenbaitlen Apaiz izateko. Pio IX-garrenak Obispo Jaunari orkaiztutako eskutitz batean, bere poza erakutsi zion, bere umezurtza Beauchêne-en arkitzen zalako. Mons. Pie, Obispo Jaunak, beti nai eta makurtasun andia zeukan Edgardogana, eta alegiñaz lagundu zion bere lanbide guzietan.

Sarritan galdetzen zion Pio IX-garrenak Obispo Jaunari, ea, noiz izango ote zan Apaiz Edgardo, eta Obispo Jaunak eranzuten zion: *Aita*

(1) El célebre y afamado Cardenal Pie, Obispo de Poitiers, recibió de Pio IX el encargo de recibir en su Diócesis á los Canónigos Regulares, emigrados á consecuencia de las revueltas políticas de Italia en 1870. Entre ellos se encontraba Edgardo, á quien el Cardenal Pie honró siempre con un cariño de padre.

Santua, Berorrek nai duenean. Nola Edgardok bear dan adiñarik ez zeuken, Pio IX-garrenak barkamena eman zion (dispensa) eta 1873-garren urtean, Abenduan Edgardo aldare Santura igo zan, Bildots chit garbi eta kutsurikgabekoa Jainkoari eskeiñtzeko. Pio IX-garrenak bere Parisko Berriemallearen (Nuncio) bidez eskutitzlabur (Breve) guziz eder bat orkaiztu zion Apaiz berriari, esaten ziola: «Poza andia zeukela bera Apaiza ikusten zuelako, eta uste zuela ordutiz aurrera Jainkoaren itza barrentzen, eta arimak ondutzen jarriko zala biotzetik eta indar guziaz, eta Ostia Santu eta garbi-garbia eskeintzen zuen guzietan, Beraz oroituko zala. Uste onetan enlaten ziola onesan (bendicion) guziz biotzekoa, Zeruko ontasun eta mesede guziak opatzen zizkiola». Eskutitz au beti gordeko du Edgardok erliki guziz baliotsua bezela, eta bere biotzian Aita Santuaren itzak gordeko ditu.

Bost urte igarota, 1878-garren urtean Oztillaren 7-garren egunean ill zan Pio IX-garrena Santu bat bezela. Au aditurik Edgardok begiak zeruan josita, an billatzen zuen, lurrean eziñ arkitu eta ikusi zuen Aita guziz maite eta laztana. Bere oñaze eta naigabea arindueziña izango litzake, jakingo ezpalu, emen munduan ainbeste maite zuen Pio IX-garrenak, Zeruan maiteago duela, eta andik obeto lagundu eta ontasun guziaz beteko duela. Au da, bai, Zeruko gloria Edgardok Jainkoari eskatzen diona, Pio IX-garren andi eta Santuaren bidez, ez bakarrik berarentzat, baizik baita ere bere familia eta Ama guziz maitechoentzat, beñ Pio IX-garren eta bere Ama eta anaiakin batean Zeruko jauregian Jaungoikoak aurpegiz-aurpegi betikotasun guzian begiratzeko.

Au da Edgardoren Pio IX-garrena-ganako nai eta makurtasun andi eta biotzekoaren erakusgaicho guziz chiki bat, bere ezur sagraduak gordetzen dituen obiaren gañean, garai eta mendeak, aize eta egualdi charrak usteldu eta ondatuko ez duten *biotzeko lorechoa*. Bai, andia izan zan Pio IX-garrena bere bizitzgaraian, arrazoi askogatik andia, baña bere anditasuna, Jesukristo gure Jaunarena bezela, ume chiki-chikiak-ganako zeukan nai eta amorioan agirian jartzen da, eta: Sillabusko, Ama Birjiña kutsurik gabeko, eta Batikanoko Konzilioko Aita Santua, Pio IX-garrena, *Aundi* eta *Santua*, etorkizunean izendatuko da ere: *Aurcho baten Salbatzallea!!!*.

Pío M.^a MORTARA,
Canónigo Regular de S. Agustín.

